

2010EKO UZTAILAREN 9AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udaletxea

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Bederatzia.

HILABETEA: Uztaila

URTEA: Bi mila eta hamar

HASIERAKO ORDUA: Goizeko hamarrak eta erdi

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Bigarrena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe

Fernando Boada González

Jon Kortaberria Lasa

Begoña Lasa Royuela

Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2010eko ekainaren 28ko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute aktarekiko zeresanik ez dagoelako.

2.- HORNIDURAREN KONTRATAZIOA:

a.- Igartza Jauregirako argiak erostea kontratatzeko esleipen-proposamena.

Kontratazio Mahaiak proposatua, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“AURREKARIAK

Gobernu Batzordeak 2010eko apirilaren 12an, Igartza Jauregirako argiak erosteko deialdia egiten erabaki zuen, prozedura irekia eta izapidetze aruntaren bidez hornidura lortzeko. Horretarako baldintza plegua onartu zuen.

Lizitazio prezioa, honela finkatu zen:

1 Lotea: 61.000 € (BEZ barne).

2 Lotea: 65.000 € (BEZ barne).

3 Lotea: 59.600 € (BEZ barne).

Gastuaren gehienezko muga: 185.600 € (BEZ barne).

Lehiaketaren deialdia, 2010eko apirilaren 22an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko epean ondorengo enpresak aurkeztu ziren:

LIZITATZAILEAK / LICITADORES
ENTERTAINMENT EQUIPMENT SUPPLIES, S.L.
SMERALDO 3000, S.L.
ELEKTRA

A kartazalaren dokumentazioa aztertu ondoren, enpresa lizitzaileei errekeritu zitzairen, aldi berean kontratistaren profilean argitaratuz, 2010eko apirilaren 27rako aurkeztu beharreko dokumentazioa.

SMERALDO 3000, S.L. ezik, aurkeztu dute eskatutako dokumentazioa. Azken honek ez du kreditatu azken 3 urte hauetan egindako hornikuntzak eta baldintza pleguaren 18. artikularen arabera, beharrezkoa da hori aurkeztea kaudimen tekniko eta profesionala justifikatzeko.

Horren ondorioz, SMERALDO 3000, S.L., lizitaziotik kanpo gelditu da. Beraz, bere eskaintza ez da baloratuko.

2010eko maiatzaren 19an, B kartazala irekitzen da eta kalitate teknikoari buruz, aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, baldintza pleguaren 16. artikuluan esleipen-irizpide honetarako aurreikusitako 50 punturen artean, honako puntuazio hau ematen zaie, 2010eko uztailaren 14an Iñaki Irastorza Mujikak egindako honekin batera doan txostenaren arabera:

LIZITATZAILEEK / LICITADORES	KALITATE TEKNIKOA / CALIDAD TÉCNICA
ENTERTAINMENT EQUIPMENT SUPPLIES, S.L.	Lote 1: no presenta oferta. Lote 2: 40 puntos. Lote 3: 15 puntos.
ELEKTRA	Lote 1: 40 puntos. Lote 2: 25 puntos. Lote 3: 40 puntos.

Eskaintzen balorazio tekniko egin ondoren, 3. kartazala irekitzen, ondorengo emaitzekin:

	Lote 1 BEZ barne	Lote 2 BEZ barne	Lote 3 BEZ barne
E.E.S., S.L.	No presenta	63.194,68	87.851,34
ELEKTRA	58.244,08 €,	53.868,23	56.775,28

Gertatzen dena da, E.E.S., S.L.ek baldintza pleguaren 2. eranskinean jasotzen den proposamen-eredua ez duela aurkezten. Proposamen-eredu honetan, lote bakoitzeko prezioak eskaintzeaz gain, argiak entregatzeko epea ere adierazi egin behar da. Sinatu gabeko aurrekontua bakarrik aurkeztu du, 2. eta 3. loteekiko eta azken honen aurrekontua, lizitazio prezioarena baino handiago da.

Kontratazio Orokor Araudiaren 84. artikulua, beste batzuren artean proposamena bertan behera uzteko adierazten du, ezarritako eredua aldatzea.

Kontratazioarako

Aholku Batzordeak behin eta berriz akatsak konpontzeko duen irizpidea aitortu du, are gehiago proposamen ekonomikoan egindako akatsak ez badio eragozten Kontratazio-Mahaiari jakitea zein izango den kontratua exekutatzeko prezioa. Dena dela, proposamen-eredurik aurkezten ez duenez, ez da adierazten zein izango den entregatzeko epea eta hau esleipen irizpide bat da.

Ez da nahiko arraozia eskaintza bat bertan behera uzteko, proposamen-ereduan hitzak aldatu edota ez jartzea, ezta ere sinatuta ez ekartzea. Zuzendu daitezken aktsak dira, baina ez proposamen-eredua ez aurkeztea.

Hori guztia kontuan izanda, ENTERTAINMENT EQUIPMENT SUPPLIES, S.L. enpresa, lizitaziotik kanpo gelditu da. Beraz, berak aurkeztutako eskaintza ekonomikoa ez da baloratu.

Horren ondorioz, Gobernu Batzordeak Kontratazio-Mahaiak proposatuta ondorengo ERABAKIA hartu du:

Lehenik. Igartza Jauregirako argiak erosteko kontratua, ELEKTRAREN alde behin-behineko esleipena egitea, berak egindako eskaintzaren arabera, prezioa eta argiak entregatzeko epea ondorengo izanik:

PREZIOA:

Lote 1: **58.244,08 €**, BEZ barne.

Lote 2: **53.868,23 €**, BEZ barne.

Lote 3: **56.775,28** €, BEZ barne.

GUZTIRA/TOTAL: **168.887,59** €, BEZ barne.

ENTREGATZEKO EPEA: 3 aste kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita / 3 semanas a contar del día siguiente al de la firma del contrato.

Bigarren. Esleipendunak 15 laneguneko epean kontratistatzailearen profilean behin-behineko esleipena argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, **7.279,64** €ko behin betiko fidantza aurkeztu beharko du.”

b.- Gernika Pasealekuko argiteria erosteko prozedura bertan behera uztea eta deialdi berri bat egitea.

Aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“**Lehenik**. 2010eko ekainaren 28an Gobernu Batzordeak onartutako eta 2010eko uztailaren 2an argitaratutako, Gernika Pasealekuko argiteriari buruzko proiektuan oinarrituta Leds argiteria erosteko, deialdi publikoa bertan behera uztea, lizitazio prezioan akatsa dagoelako.

Bigarren. Deialdi publiko berri bat egitea, Gernika Pasealekuko argiteriari buruzko proiektuan oinarrituta Leds argiteria erosteko. Horretarako baldintza administratiboa eta erosi nahi diren argien xehetasun teknikoa onartu dira.

1.- Prozedura: irekia publizitatearekin

2.- Izapidetzea: arrunta

3.- Lizitazio prezioa: gastuaren gehienezko muga: 101.626,98 € (%18a BEZ barne)

4.- Hornidura-epea: kontratua sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita, 4 aste.

5.- Espedientea: administrazio-baldintza eta xehetasun teknikoak, interesatuen esku aurkitzen dira, Udalaren web orrian (www.beasain.net). Zehazki kontratistatzailearen profilean.

6.- Proposamen ereduak: Baldintza Administratiboen pleguaren 2 eranskinean azaltzen dena.

7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik eta hurrengo 15 egunetan.

8.- Adjudikazio irizpideak:

- Proposamen ekonomikoa: 40 puntu.
- Eskaintzaren kalitate teknikoa: 50 puntu.
- Berme-epea handitzea: 10 puntu.

9.- Proposamenak irekitzeko lekua, eguna eta ordua: plika irekitzea kontratistatzailearen profilean argitaratzen den tokian, egunean eta orduan egingo da.

10.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerik administrazio-baldintzen Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.”

Une honetan, Aitor Aldasoro jaunak bilera utzi egin du.

3.- ADMINISTRAZIOKO KONTRATUAK ETA ABALAK. Fidantza-kopuruari buruzko irizpideak.

Alkateak ondorengo proposamenaren berri eman du:

“Gaia: kontratu administratiboak bermatzeko aurkeztu beharreko fidantzen kopuruari buruzko irizpideak.

I.- 2010eko otsailaren 1eko 28/2009 Kontratazio-Aholkularitza Batzordearen txostenak adierazten du zein kopuru erabili behar den kalkulatzeko kontratuaren esleipendunak aurkeztu beharreko behin betiko bermea.

Esaten du, Sektore Publikoaren Kontratuak arautzen dituen Legearen 83. artikulua aipatzen duen kontratu-esleipenaren kopurua dela kontratuaren esleipendunak eskaintako azkeneko prezioa, hau da, lizitazioan, bera bakarri edota eskaintzaren beste elementuekin batera oinarria izan den esleipena egiteko. Prezio hau segidako traktu kontratuetan, hain zuzen ere, prestakuntza errepikatu eta etengabe ematen denetan, hasieran kontratuak aurreikusita zuen iraupenarekiko izango da, luzapenak kontutan izan gabe.

Bermea aurkeztearen arrazoia ondorengoa da: kontratua gaizki exekutatzetik ondorioztatu daitezkeen kalteak kobratzea. Legeak orokorki kontsideratzen du kalte hauek estalita gelditzen direla, kontratu-kopuruaren portzentaia baten bermea eskatuz.

II.- Baina, obra edota hornidura-kontratuak ez diren kontratu mota hauetan, gertatzen dena da egungo ekonomiko-finanziario krisialdian, kontratu kopuru osoarekiko %5eko bermea jartzea, oso garestia gertatu daitekeela esleipendunarentzat. Are gehiago enpresa txikiak direnean.

III.- Orohar dagoen krisialdiak enpresa eta familietako eguneroko trafikoan, likidezia falta areagotu egin du eta horregatik, Udalbatza Osoak 2009ko urtarrilaren 29an, periodikoak ez diren zorrak geroratzeko eta zatitzeko neurriak hartu zituen Legeak ezartzen dituen baino zabalagoak. Urte bukaera arte indarrean zegoen erabaki hau berretsia izan zen 2009ko azaroaren 27an.

Arrazoi hauek direla medio, eta jabeturik Toki Entitateak ere ahalegina egin behar dutela, enpresek beraien jarduera garatzeko beti ere udal interesen aurka joan ezker, Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki proposamena egiten zaio:

Lehenik. Izaera orokorrarekin eta ekitaldi honetako abenduaren 31rarte, urte anitzeko eta segidako traktu administrazioko-kontratuetatik ondorioztatzen diren betebeharrak bermatzeko fidantzaren kopurua, ondorengo izatea: kontratuaren urtebeteko kopuruari dagokion Legeak ezartzen duen portzentajea. Izan ere, zaila da honelako prestazioetan ezkutuko akatsak sortzea kontratua amaitu eta gero, obra eta hornidura kontratuetan gertatu daitekeen modura. Haietan akatsak kontratua exekutatzen ari den bitartean ikusten baitira.

Bigarren. Erabaki hau da aplikatuko da, gaur egun behin betiko esleipena lortu ez duten prozeduretan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek adostasuna azaldu dute proposamenarekiko, Fernando Boada jaunak izan ezik, izan ere, bere ustetan, erabaki hau aurkaratua izan daiteke, legearen aurka doalako. Jarraian ondorengo azaldu du: “proposamenaren bigarren puntuan esango balu erabakiaren aplikazioa hemendik aurrera sortzen diren espedienteetan izango dela, agian beste jarrera bat izango genuke, baina etxez-etxeko laguntza zerbitzua esleitu zaionak eskatu duenez, erabakiaren aurka gaude. Izan ere, enpresa honi, lizitaziora aurkeztu zirenekiko aldeko-tratua ematen zaio eta agian orain aurkeztea proposatzen den fidantzaren kopurua baldintza pleguan adierazi bazen, enpresen eskaintzak ere desberdinak izango ziren. “

Bozketa eginda ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (EAJ, Alkarbide, EB, PP)
Aurkakoa botoak: 1 (PSE-EE/PSOE)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

4.- MERKATAL LOKALAREN ERABILERA EGOILIARRA IZATEKO ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA. Kasu ezberdinak

Ezagutzera eman da, aipatutako ordenantzak, lokala etxebizitzan bihurtzeko ematen dituen hiru aukera desberdinek:

1.- Lokalaren jabeak berarentzat edota asaba edo ondorengoentzat, aldaketa egiten du.

2.- Lokalaren jabeak, aldaketa egiten du eta Udalaren esku uzten du, Udalak Etxebiden izena emanda dutenen artean zozketa egiteko eta tokatzen zaionari etxebizitza esleitzeko.

3.- Lokalaren jabeak erabilera-aldaketaren baimena eta obra-baimena eskualdatu dezake, baina beti ere, lokalaren jabetza eskualdatuz.

Gertatu dena da hirugarren aukera honetaz baliatuz, lokalaren jabeak baimena eskatu zuen hiru etxebizitza egiteko eta nahiz eta dokumentu pribatu batean lokala eta lizentzia eskualdatu, obra-berriaren aitortpena, etxebizitza eskuratu behar dutenek egin ordez, saltzaileak egin behar izan duela, bestela erosleek finantziatorik lortzen ez zutelako. Beraz, proposatzen dena da Alkatea jaunari baimena ematea lokalaren jabeari lizentzia emateko, lokala hirugarren sektoretik egoiliarra izatera pasatu ondoren, salmenta zuzenean egiteko lehen adierazitako kontratu pribatuan azaltzen direnen alde, ondorengo baldintzekin:

- Lokalaren aldaketatik sortutako hiru etxebizitzak tasatu kalifikazioa dutenez, zuzenean eskualdatzeko ebazpenean adieraziko da, prezioa zein izango den.
- Gehienezko salmenta prezioa bermatu ahal izateko, bere balioa ondorengo izango da: Eusko Jaurlaritzak ezarritako babes ofizialeko etxebizitzaren salmenta-modulua bider momentu bakoitzean, udal-ordenantzak finkatzen duen, koefizientea. Hori guztia bermatzeko lehenetsunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubide bat ezartzen da Udalaren alde.

Bozketa eginda, aho batez onartu da.

5.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera goizeko hamaiketan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.